

## ***Etsipena eta ikasteko ezintasuna***

***Gloria Sánchez***

*Nahi izatea ahal izatea dela esaten du herriak. Hori egia bada ere, askotan nahi bai, baina, ez dakigu nola. Ikasteko gaitasun nahikoa eduki eta, hala ere, ikasteko gai sentitzen ez den pertsona baten aurrean baldin bagaude, aztertu egin behar dugu zein den gogorik eza horren iturria. Amore eman duen ikaslea gehiago ikasteko prest ez dagoen ikaslea da. Une horretara ailegatuta, gustura hartuko lukete pertsona horiek atsedena, baina, inguruko errealitateak eraginda harrapatuta daude gehienetan eta ezin diote euskara ikasteari utzi. Ondorioz behartuta aurkitzen ditugu, gure geletan, etsita eta motibazioa erabat galduta, ikasi ezinik. Blokeo afektiboa handiegia da gogorik eza beren kabuz gainditu ahal izateko. Eta hor daude gure aurrean beraien motibazio-falta guretzako erronka bihurtuta.*

### ***Etsipenak jotako ikasleak***

Haietako asko gaur egun institutuetao ikasleak dira, sistemak daukan irakasteko metodo desegokiaren biktimak. Hamasei urte bete orduko gurasoek gure geletara bidaltzen dituzte buruan daukaten nahastea konpontzeko asmoz. Behartuta etortzen zaizkigu eta, gehienetan, ez dakite ikasten ez euskara ez beste edozein ikasgai ere. Ikasteko gogorik eza nabarmen erakusten dute baita gu, irakasleok, geure onetik ateratzeko erraztasun itzela ere.

Beste batzuk, berriz, helduak izanik, ilusioz beterik hasi ziren euskara ikasten; baina hasierako ilusioa galdu zuten bidean. Gehienetan, oso denbora gutxian informazio gehiegi jaso duten ikasleak dira. Nolabaiteko komunikazio-ahalmena berehala lortu zuten, barneratze-prozesuari behar beste denbora eskaini gabe. Egitura korapilatsuak osatzen saiatzen dira, oinarriko elementuak erabiltzean akats larriak eginez. Gure taldeetan horrelako bat topatzen dugunean ezinegon sentitzen dugu eskarmentuak esaten digulako borroka galduta dugula hasi baino lehen. Eta askotan geu gara ikasle horrek daukan egoeraren erantzule, gure pedagogia beraren beharrei egokitzen jakin ez dugulako edota beraren ikas-estiloa errespetatu ez dugulako.

Guztiok aitortzen dugu “garbiketa” egin behar duten ikasleak direla. Baina nola ezabatu burmuinean sortutako anabasa? Jakin, ondo dakigu hasieratik berriro hasita ere ez dutela aurrera egingo. Buruan daukaten informazio-nahaspila guztiz ezabatzea ezinezkoa denez, egin daitekeen gauza bakarra da informazio hori guztia berrantolatzea.

Irakasleok etsita sentitzen gara. Eta erraza da imajinatzea nola sentitzen den ikaslea ere. Gure aurrean dagoen pertsonak zulo batean sartuta ikusten du bere burua eta sinetsita dago hizkuntzetarako oso txarra dela. Bere buruari etengabe esaten dio ez duela erremediorik, trakets hutsa dela hiztegia ikasteko, euskara zailegia dela berarentzat eta abar. Erraz antzematen zaio “ikasitako etsipen” delakoan erori den pertsonari diskurtso horretan. Ezintasunik handiena da barneratzea arrakastaren kontrola beste baten esku dagoela, egiten duguna egiten dugula ere porrota dugula zain.

Badira beste ikasle batzuk, ordea, puntu berera heldu direnak hasiera guztiz bestelakoa izanik. Behartuta hasi ziren euskara ikasten kanpoko motibazioa edukita.

Horien artean lanpostu hobea edo behin betiko lanpostu bat lortzeko langileak ditugu, besteak beste. Kanpoko motibazioa ez da berez txarra baldin-eta diziplinatuak bagara, erronkak atsegin baditugu, eta batez ere, geure buruarengan konfiantza handia badugu. Lurra indarrez zapaltzen duten horietako bat baldin bagara, ezarritako helburua lortuko dugu kosta lain kosta. Aurrean izan ohi ditugun ikasle etsituak oso bestelakoak dira, ordea.

Hasieran adore apur bat bazuten ere, berehala galdu zuten euskararen lehenengo gailurretara ailegatuta. Lasterketaren bukaerako saria desiragarria izanik ere, ez dute kemenik aurkitzen beren baitan aurrera segitzeko.

Gehienek ez dakite hizkuntza nola ikasi. Ez dakite denborari etekinik ateratzen. Ez dakite ikas-estrategiez baliatzen. Eta, gainera, horien helburua ez da gaitasun komunikatiboa lortzea, baizik-eta dena delako azterketa gainditzea. Eta guztiok dakigu, zoritxarrez, egiaztagirri batek ez duela euskaldunik sortzen. Ikasle

horietako batzuek maila ona lortu badute ere, behin eta berriro huts egin dute ustezko zorientasunetik aldentzen dituen azterketan.

Horiek ere sinetsita egoten dira, egiten dutena egiten dutela, ezinezkoa dela helburua lortzea, arrakasta beste baten esku dagoelako. Porrota zenbat eta gehiagotan egin, iragazki afektiboa hainbat eta itxiago izaten da eta, halaber, hainbat eta handiagoa etsipen ikasia. Euskara, azken batean, etsai bihurtu da haientzat beren gauzetarako astia kenduz. Nola ikasi gogo onez bizitza oztopatzen dizun zerbait?

Ikasle horiek guztiek ezaugarri bera dute: ikasteko motibaziorik eza. Eta ikasteko motibazioa ez ezik, zer gertatzen zaien jakiteko nahia ere galdu dute. Arazoa nolakoa den jakin gabe, nola konponduko dute?

### ***Motibazioa***

Javier Buron-ek motibazioari buruzko definizio hau eskaintzen digu “Motivación y aprendizaje” liburuan:

“Motibazioa helburu bat lortzera eramaten gaituena da, baina horretarako helburua egingarri ikusi behar dugu. Izan ere, itxaropenik, aukerarik gabe ez dago arrazoirik ahalegintzeko ezta saiatzeko ere, hau da, itxaropenik gabe ez dago motibaziorik.”

Motibazioak, beraz, gure adimena eta emozioak pizten ditu. Eta horrek zerbait egitera eramaten gaitu helburu jakin batzuk lortzeko.

Argi ikusten dugunean zer egin nahi dugun eta nola lor dezakegun ahalegin guztiak egiten ditugu, nor bere erara, indarrak ondo neurtuz, arrakasta lortzeko.

Baldintza horiek tarteko direnean egoera berezi bat sortzen da: “Fluxu-esperientzia” horren menpe gaudela, gure adimena eta gorputza erabat inplikaturik daude, gure kontzentrazioa oso handia da, badakigu-eta zer egin nahi dugun. Badakigu ondo ala txarto ari garen, porrota ez da kezkatzekoa, denbora oso arin pasatzen da, dena ateratzen zaigu erraz. Hori irakasleok ere noizbait esperimentatu ahal izan dugu eskola ematean, dena borobil atera zaigunean, eta ikasleen arreta eta lan egiteko gogoia oso nabarmen geratu denean.

Baina, esan bezala, kezkatzen gaituzten ikasleek motibazioa galdu dute bidean, edo kanpoko motibazioa izanda, gogoz kontra hasi ziren ikasten. Argi dago ez dutela inolako erraztasunik sentitzen ikastea eta, are gehiago, ez dutela inolako fluxu-esperientziarik sentitzen euskara ikasten dutenean. Nola lagundu? Ba al dago konponbiderik?

### ***Irakaslearen rola***

Santurtziko Udal Euskaltegiko *Gela Irekia* auto-ikaskuntzarako zerbitzuan ekin diogu, azken bi urteotan eta egoerak behartuta, ikasle horien problematika aztertzeari ikasleei lagundu nahian. Izan ere, Gela Irekira etorri zaizkigun ikasleak, kopuru handi batean, arestian deskribatutako ikasle-motakoak dira. Hasieratik ikusi genuen laguntzeko modu bakarra zela motibazioa eta autoestimua berreskuratzen laguntzea.

Sidney M. Jourard terapeutaren esanetan, gizakiok ditugun beharren artean, hurrengo hauek dira premiazkoenak: onartuak garelako eta gutaz kezkatzen direlako sentitzea; entzun eta ulertu egiten digutela baieztatzea; eta harreman positiboak eta mesedegarriak lortzea. Mundu guztiak ez du behar horiek asetzeko aukerarik izaten. Eta, horregatik, sentimendu horiek garatzeko aukera ematen digutenean, dena delako hori pozgarri eta mesedegarri bihurtzen da. Hizkuntza bat egoera horietan ikastea erabat motibagarria izan behar da. Horrela jokatzen duen irakasleak bere ikasleen ikas-prozesuan positiboki eraginkorra izatea lor dezake.

Gure irudimena erabiliz ikaslearen lekuan jar gaitzke haien sentimenduak eta pentsamenduak geure eginez. Arrakastarik eza dastatu eta desmotibaturik dauden ikasleen arazoa konpontzeko, erantzun akademiko soila baino gehiago bilatu behar dugu. Garai egokian, adone emateko hitz pare bat opari ematea azalpen didaktiko eta ezin argiago bat ematea bezain onuragarria izan daiteke ikasle batentzat.

Irakasle eta ikasleen arteko harreman afektiboa estua bada, eta irakaslea sinetsita badago ikaslearen egoera hobetzeko zerbait egin dezakeela, ezinezkoa da, epe luzera behintzat, onurarik ez lortzea, erabilitako

teknikak oso sofistikuatuak ez izanagatik. Baina fede hori izateko ezinbestekoa da sinestea ikaslearen ahalmenean eta –hau da garrantzitsuenen– geure gaitasunean.

Hala ere, bakoitzari arreta eskaintzea ez da eskola partikularra ematea, jende askok uste duen bezala. Ikasleari ikustarazi behar zaio arazo bat duela. Eta arazo hori zein den argi jakiten laguntzean datza lan berezi hori. Behin arazoa aztertuta, ikasleari konponbide batzuk eman ahal zaizkio, ikasleak berak erabakiak har ditzan. Irakasleak ikasleei beren arazoak konpontzeko ikuspegi logiko bat irakatsi behar die. Ikasleek ikas-prozesua kontrolatzen badute, jasotako informazioa aktiboki prozesatuz eta eraldatuz, eraginkorragoak eta autonomoagoak izango dira.

Besteen arazoak zein diren jakiteko, lehenengo eta behin geure burua ezagutu behar dugu ongi. Bere burua ezagutzen ez duen irakaslea ez da inori laguntzeko gauza. Millet-en hitzetan, irakasleek ikaslearengan ardaztutako ikaskuntzan dihardutenean, irakaskuntza hobetu nahi badute, lehenago beren buruarekin lan egin beharraz konturatzen dira. Beren burua hobeto ezagututa, beren ikasleak ere hobeto ezagutuko dituzte eta hobeto gidatuko dituzte ikas-prozesuan. Zalantzarik gabe, motibaturik dagoen irakasleak bere ikasleak motibatzen ditu.

### ***Lan egiteko prozedurak***

Ezer baino lehen, argi gera dadila ez dagoela konponbide magikorik ezta bakarra ere. Ikasle batekin funtzionatzen duena gerta liteke guztiz alferrikakoa izatea beste batekin. Bestela, hau guztia errazegia litzateke, eta, guztiok dakigunez, errealitatea bestelakoa da.

Nola lagundu diezaiekegu ikasleei bidaian? Lehenengo eta behin geure buruarengan sinestu behar dugu. Kontzeptu positiboek bizkortu egiten gaituzte; negatiboek, berriz, gogogabetu. Eta etsita ez goaz inora. Laguntzeko kapazak garelako onartu eta sentitu behar dugu, ikasleei sentipen hori igorri ahal izateko.

Norbaiti laguntzeko, lehenago entzun egin behar zaio. Izan ere, entzunez beti aurkitzen da arazoaren jatorria. Hala ere, askotan ez da azalean agertzen eta lerro artean irakurri behar da. Gehienetan, entzun eta arazoa zein den mugatu ondoren, arazoei aurre egiteko konfiantza igorri behar zaio ikasleari, behar duen kemena bere baitan bilatzeko. Gakoa ez datza, hortaz, “ondo egiten duzu” esatean, baizik eta entzutean eta arazoa zein den ulertzen laguntzean. Ikasleak sentitu behar du beraren alde gaudela. Giroak lasaia eta konfiantzazkoa izan behar du, ikas prozesuari buruzko hausnarketa arrakastatsua egiteko. Guk ikasleari, daukan egoera ulertzeko, informazioa eta buru-lana eman ahal diogu; baina ezin dugu egin beraren orde berak egin beharreko lana, inork ez baititu inoiz konpondu beste baten arazoak. Konponbidea bilatzen lagundu ahal diogu ikasleari, baina azken soluzioa, behar den ausardia, berak ipini beharko du.

Puntu bakar bat nahikoa izan daiteke ikaslearen gogoaren euskarria ezartzeko. Baina horixe da, hain zuzen ere, lan honetako alderik zailena eta denbora gehien eramango diguna, ikasle horri zer gertatzen zaion ezagutzea. Ikaslearekiko elkarriketa horietan ezin dugu baztertu ezein xehetasun, hasiera batean garrantzirik gabekoa iruditzen bazaigu ere: ikaslearen bizimoduaren gorabeherak, euskara ikasteko benetako arazoia, lan-egoera, adina, osasuna, zaletasunak, gustuak, ikasteko ohiturak, ikas-estiloak, euskararen ikastean egindako ibilbidea, irakasle eta ikaskideekiko harremanak eta, batez ere, zein den ikaslearen ustez arrakasta ezaren arrazoia, edo nori edo zeri leporatzen dion porrota. Azken galdera horiei erantzuteko kapazak bagara, ikasle horri laguntzeko aukera izango dugu.

Datu guztiak aztertuta, eta arazoa zein den argi ikusita, ezin da gezurretan ibili. Ikasleari egia esan behar zaio. Egia ezagutu behar du, esan bezala, berak konponduko baitu daukan arazoa. Guk konpontzen lagundu besterik ez diogu egingo.

Gasteen kasuan, askotan aurkitu duguna izan ohi da ez dakitela ikasten. Ez dakite zer egin jasotzen duten informazioarekin. Hamasei urteko ikasle batek behin komentatu zidan berarentzat euskara ikastea zela eredurik gabeko bost mila ataletako *puzzle* bat egitea bezain zaila. Berak pieza guztiak imajinatzen zituela askatuta eta mahai baten gainean botata. Batzuetan piezaren bati antzematen ziola, baina ezin zuela imajinatu nolakoa izan litekeen *puzzle* osotasunean. Nik galdetu nion nola ikasten zuen, eta berak erantzun zidan azterketa bat hurbiltzen zenean apunte guztiak sakabanatzen zituela ohe gainean, nondik hasi ez zekiela.

Hasteko, apunte guztiak ezkutatzeko agindu nion eta bakoitzean orri bakarra ateratzeko. Kontzeptu bakar baten gainean hausnarketa egiten ikasteko. Ez dut inoiz ahaztuko bere poza, konturatu zenean, bere ustez,

buruz ikasi behar zituen aditz haiek logika erabiliz ikasten zituela. Apurka-apurka joan zen puzzlearen ereduaz jabetuz, nire laguntzarik gabe. Behin giltza aurkituta sarraila guztiak irekitzeko gauza ikusten zuen bere burua. Kasu hori ez da bakarra. Askotan gazteen motibazioa piztea, salbuespenak salbu, uste dugun baino errazagoa da. Zenbait gurasok aipatu digute euskara ikastea bestela ikasitakoa ere erabili dutela beste ikasgaietan nota guztiak hobetuz. Irakasleok ez genuke ahaztu behar, ikasgaia gorabehera, ikasten irakastea dela gure eginbehar nagusia.

Helduekin, berriz, zailagoa izaten da analisia egitea. Etsita dagoen helduak ez du atea hain erraz irekitzen. Eta prozesuan parte hartzen duten aldagaiak gazteen kasuetan baino ugariagoak izaten dira.

Adituen ustez, helduok hizkuntza bat ikasten dugunean, estresa eta tentsioa sufritzen dugu; besteak beste, gure nortasuna desitxuraturik geratzen delako. Jatorrizko hizkuntzaz kontzeptuak argi eta era dotorean azaltzen ditugun bitartean, bigarren hizkuntza ikasten ari garela barregarri ager gaitzke sarritan. Eta hori oso mingarria da gure *ego*-rako. Garen guztia eta dakigun guztia hizkuntza-gaitasunaren bidez erakusten diegu besteei. Gaitasun hori bigarren hizkuntzan lortu arte huts egiten dugula sentitzen dugu, ezin baitugu kanporatu gure benetako izaera.

Bere buruaz barre egiteko kapaza denak umorearen bidez gainditzen du oztopo hori. Gure ikasle batek zioenez, bere nortasunak asko galtzen zuen itzulpenarekin. Izan ere, umore handiko pertsona izaki, jatorrizko hizkuntzaz berezkoa zuen ironia-puntua euskaraz lortu arte ez zen erabat gustura sentitu. Hala ere, zaila da ikustea umoretsua den pertsona bat motibazioa galtzen, umorea baita arazoei aurre egiteko gizakiok dugun tresnarik erabilgarriena. Baina denak ez dira berdinak eta askotan gure geletan ikus dezakegu nola sufritzen duten helduek, nahi dutena azaldu ezinean dabiltzanean. Gai honetan erne ibili behar dugu irakasleok zuzentzeko uanean, *Ego* ahula daukan heldua erraz min daitekeelako. Eta min horrek oso erraz eraman dezake pertsona hori etsipena sentitzera.

Komeni da ikasle horiekiko elkarriketak jatorrizko hizkuntzaz egitea, elkarriketa horietan ikasleak diren bezala agertzen baitira irakaslearen aurrean. Beren *Egoa* ondo babestuta, errazagoa da haientzat onartzea erroreak egitea ikas-prozesurako beharrezkoa dela eta ibiltzen ikasi behar dela korrika egin baino lehen.

Ikaslearen benetako ahalmena ondo ezagutu behar dugu aurreiritzirik ez eraikitzeko. Izan ere, ikasle heldu bati buruzko irudi faltsuak osatzen ditugu bigarren hizkuntzaz hala-moduzko iritzia azaltzen ikusten dugunean. Neuk, behintzat, ustekabe bat baino gehiago hartu dut horrelako ikasle bati jatorrizko hizkuntzaz egoki mintzaten entzun diodanean, nire begien aurrean ezagutzen ez nuen kulturadun eta burua ondo jantzita duen pertsona aurkitzean. Hortaz, ustekaberik ez hartzeko, komeni da edozein mailatako ikasleei gaztelaniaz egindako idazlan bat eskatzea, bertan sumatzen direlako pertsona horren kultura eta prestakuntza. Idazki horiek azalduko digute ikaslearen ezintasunaren zergatikoa, lerro artean irakurtzen baldin badakigu. Horrela, ikaslearen benetako izaera ezagutzen badugu, euskaraz sortutako ekoizpena baloratu ahal izango dugu.

Bere iritzia txarto azaltzeagatik, goi-mailako ahozko azterketa bat behin eta berriz gainditu ez duenari dagokio etsita dagoen ikaslearen profila. Haietako batek, nik ezagutu nuenean, lau aldiz eginda zuen Hizkuntza Eskolako goi-mailako ahozko azterketa. Hitz aspertuan ari ginela erraz eta zuzen erabiltzen zuen hizkuntza, baina gaia garatu behar zuenean, esaldi korapilatsuegiak egiten zituen, arreta galduz, baita zuzentasunerako kontrola ere. Egindakoaz konturatzen zenean urduri jartzen hasten zen eta bukatu bezain laster, *ezin dut eta ez dut inoiz gaindituko* esaten zuen.

Behin eskatu nion bere gustuko gai bati buruz hitz egin zezala eta grabagailu bat erabili nuen hari esan gabe. Ordu erdiz jardun genuen solasean, erlaxaturik eta barreka. Bukatutakoan grabatutakoa entzunarazi nion eta ondorioak ateratzeko eskatu nion. Atera zuen ondorioa izan zen bera zela grabagailuan hitz egiten zuen pertsona eta ez aztertzaileen aurrean agertzen zena. Handik aurrera gaiak bestela garatzen hasi zen eta gainditzeko kapaza zela onartu zuenean, azterketa gainditu ahal izan zuen.

Antsia sentitzen dugunean, memoriak eta adimenak behar duten energia xahutzen dugu eta horrek oztopatzen digu ikastea. Azken bolada honetan, gure geletatik pasatzen diren ikasle askok erakusten dute arazo hori. Gehienak kanpoko motibazioa eta porrota esperimendu dutenak dira. Horiekin egin behar dugun lehenengo lana iragazki afektiboa biguntzea da. motibazioaren norabidea aldatzea komeni da kasu horietan. Nola, baina?

Etsipenak jotako ikasleen sintoma nagusia izaten da irakaslearenganako mesfidantza. Aztertzaileak ikusten dituzte guregan. Eta beren alde gaudela sentitu arte zaila egiten zaigu laguntzea. Guregan konfiantza izan behar dute esaten dieguna sinetsi behar digutelako. Daukaten arazoa aitortu behar dute, eta zail da aitortzen etsai baten aurrean. Lagunari, berriz, isilmandatuak egiten zaizkio. Urte hauetan izan dugun eskarmentuak esaten digu ikasleak babes-hesiak arindu arte ezinezkoa dela arazoa zein den ikustea.

Ikasle bakoitzarentzako irtenbide egoki bat aurkitu behar dugu. Askorentzat irtenbidea izaten da euskararen ikaskuntza erronka hartzea. Hauentzat helburua ez da izango titulua edo agiria emango dion azterketa gainditzea, baizik eta ikaskuntzaren ondorio logikoa. Benetako helburua izan behar da bere buruari erakustea ikasteko eta gauzak lortzeko kapaza dela. Hori gauzatzeko, epe laburrerako helburu lortzeko modukoak ezarri behar ditu ikasleak berak gure laguntzaz.

Nahi badugu geure ikasleek eskaintzen dizkiegun lanetan buru belarri jardutea oso garrantzitsua da erronka egokia ezartzea, eta, hori gainditzeko, estrategia egokiak diseinatzen laguntzea. Ondo neurtu beharrak dira ikasleen ahalmena eta indarrak gehiegizko helburuak ez markatzeko. Honetaz gain, ikaslearen interesa aurkitzea lagungarria da. Gustatzen zaizkigun gauzak egiten ditugunean, aipatutako fluxu-esperientzia gertatzen zaigu.

Tarteko helburu horiek lortu ahala ikasleak ikusiko du euskara ez duela etsai, baizik eta lan-tresna lagungarria bere buruarekiko borroka irabazi ahal izateko. Probetxua aterako duela sinesteak ere bere biziko garrantzia du. Erabakitzen badugu egoera bat ezinezkoa dela, automatikoki galaraziko digu horrek irtenbide bila aritzea.

Ikasleak galdutako konfiantza berreskuratuko du baldin-eta ikusten badu bere burua ikasteko kapaz eta aurrera doala. Euskara ikasteko behar soila zenak, bere buruarekiko erronka bihurtuta, asetasun pertsonala ere ekarriko dio. Lortzeko moduko helburuak ezartzeak bihurtzen du ikaskuntza esperientzia aberasgarri eta pozgarri.

Mayes-en hitzak, Martin Luther King-en irakaslea izan zenarenak, geure eginez “kontuan hartu behar dugu bizitzaren tragedia ez dela helburu bat ez lortzea, tragedia da helbururik ez izatea. Ametsak lortu gabe hiltzea ez da hondamena, ametsik ez egitea, bai ordea”.

### ***Bibliografía***

**Burón, J.** 1997. *Motivación y aprendizaje*. Ediciones Mensajero.

**Williams, M., Burden, R.** 1999. *Psicología para profesores de idiomas*. Cambridge University Press.

**Arnold, J.** 2000. *La dimensión afectiva en el aprendizaje de idiomas*. Cambridge University Press.